



## 198 EREDUAREN ERREGISTROKO DISEINUAK

### 198 eredia telematikoki aurkezteko sortzen diren fitxategiek bete beharreko erregistroko diseinuak

A) Transmisio telematikoan erabilitako fitxategi informatizatuen eta ordenagailuz zuzenean irakur-tzeko euskarrien ezaugarriak.

«Aktibo finantzarioekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena» (198 eredia) telematikoki transmititzeko fitxategi informatizatuek eta haren aurkezpenerako erabiltzen diren euskarriek ezaugarri hauek bete behar dituzte:

— Disketeak.

3 ½'-koak, alde bikoitzekoak. Den-tsi-tate handia (1.44KB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

— CD-R (Compact Disc Recordable).

Tamaina: 700 MB-raino.

Formatua: ISO/IEC DIS 9660:1999, Joliet luzapenarekin edo hori gabe.

Euskarriek fitxategi bakar bat eramango dute, DOxxxx izendatuko dena. xxxx aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira, eta fitxategi bakar horrek erregistro mota ezberdinak jasoko ditu, B) atalean aipatzen den ordenean.

Fitxategiak diskete bat baino gehiago hartzen badu, behar adinako fitxa-tegitan banatuko da. Fitxategi partzial bakoitzak honako deitura hau eramango du: DOXXXX.NNN (NNN= 001, 002,...). XXXX aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira, eta NNN fitxategiek elkarren segidan izango duten zenbakia, 001etik hasita.

Artxibo partzialen erregistroak osoak izango dira beti, hau da, inoiz ezingo da fitxategia banatu eta fitxategi partzialetan osatu gabeko erregistroak utzi.

B) Diseinu logikoak.

### ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: aitortzailearen erregistroa:** identifikazio datuak eta aitortpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

**2. mota: aitortuaren erregistroa.** 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motako erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortuak adina erregistro aurkeztuko dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldeetik zuriz beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldeetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta enpaketatu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, alfabetiko/alfanumerikoak zuriz joango direlarik.



## 198 EREDUA

### A. 1. MOTAKO ERREGISTROA AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA        | EREMUEN AZALPENA  |
|-----------|---------------|---|
| 1         | Numerikoa     | <b>ERREGISTRO MOTA</b><br><br>«1» konstantea.   |
| 2-4       | Numerikoa     | <b>EREDUA</b><br><br>Finkoa: «198».   |
| 5-8       | Numerikoa     | <b>EKITALDIA</b><br><br>Euskarrian sartu diren aitortzen urte naturaleko lau zifrak jarriko dira.   |
| 9-17      | Alfanumerikoa | <b>AITORTZAILEAREN IFZ</b><br><br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.   |
| 18-57     | Alfanumerikoa | <b>AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZINETATE IZENA</b><br><br>Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.<br><br>Pertsona juridikoak izanez gero, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.<br><br>Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri. |
| 58        | Alfabetikoa   | <b>EUSKARRI MOTA</b><br><br>Gako hauetako bat jarriko da:<br>«C»: informazioa CD-R batean aurkezten bada (Compact Disc Recordable).<br>«D»: Informazioa disketean aurkezten bada.<br>«T»: informazioa telematikoki aurkezten bada.  |
| 59-107    | Alfanumerikoa | <b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b><br><br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:   |

59-67: Telefonoa. 9 Posizioko eremu numerikoa.

68-107: Deiturak eta izena. Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

**108-120**

## **ZURIUNEAK**

**121-122**

**Alfabetikoa**

## **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA**

Salbuespenez bigarren edo ondorengo aitorpen bat aurkezten denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:

121. Aitorpen osagarria.

«C» jarriko da, baldin eta aitorpen hau aurkezteko helburua lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren eragiketak sartzea bada.

122. Ordezko aitorpena.

«S» jarriko da, baldin eta aitorpen hau aurkezteko helburua ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabe-tzea eta bere osoan ordezkatzeta bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bakar bat ordezka dezake soilik.

**123-135**

## **ZURIUNEAK**

**136-144**

**Numerikoa**

## **AITORTUEN KOPURU OSOA**

Aitortzaile honentzat euskarrian guztira zenbat aitortu sartu diren jarriko da. Aitortu bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendan agertzen den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua).

**145-162**

**Numerikoa**

## **ERAGIKETEN ZENBATEKOA**

18 posiziotako eremu numerikoa.

«Eragiketen zenbatekoa» eremuetan (aitortuen erregistroetako 150etik 164ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

145-160. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

161-162. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

**163-180**

**Alfanumerikoa**

## **ETEKINAK**

Eremu hau bitan banatzen da:

163. Zeinua. Ereku alfabetikoa. Etekin egozgarrien zenbatekoa lortzeko egiten den batuketaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa denean beteko da (1. motako erregistroko 164tik 180ra arteko posizioak). Kasu horretan «N» bat jarriko da. Beste edozein kasutan, eremu hau hutsune bat izango da.

164-180. Zenbatekoa. 17 posiziotako eremu numerikoa. «Zenbatekoa» eremuetan (2. motako erregistroko 166tik 176ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da hemen. Aitortuaren erregistroetan «Etekinaren zeinua» betetzean (2. motako erregistroko 165 posizioan) «N» bat jarri bada, zenbateko horiek minus zeinuarekin konputatuko dira bertan adierazi beharreko zenbatekoak totalizatzean.

Eremu hau bitan banatzen da:

164-178. Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

179-180. Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

**181-197**

**Numerikoa**

**KONPENTSAZIOAK**

17 posizioko eremu numerikoa.

Eremu honetan jarri behar da, koma hamartarrik gabe, konpentsazioak eremuetan (2. motako erregistroko 224tik 235era arteko posizioak) adierazitako zenbatekoen batura.

Eremu hau bitan banatzen da:

181-195. Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa.

196-197. Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.

**198-214**

**Numerikoa**

**ZEHAPENAK**

Zehapenak eremuetan (2. motako erregistroko 442-453 posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da, koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

198-212 Zehapenen zenbatekoaren zati osoa.

213-214 Zehapenen zenbatekoaren zati hamartarra.

**215-500**

**ZURIUNEAK**

\* Kopuru guztiak positiboak izango dira.

\* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

\* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.

\* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

\* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik lerrokatu behar dira, eta eskuinaldetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe, eremuaren deskribapenean besterik esaten denean izan ezik.



## 198 EREDUA

### B. 2. MOTAKO ERREGISTROA

### AITORTUAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA        | EREMUEN AZALPENA   |
|-----------|---------------|--|
| 1         | Numerikoa     | <b>ERREGISTRO MOTA</b><br><br>Finkoa: «2».   |
| 2-4       | Numerikoa     | <b>EREDUA</b><br><br>Finkoa: "198".  |
| 5-8       | Numerikoa     | <b>EKITALDIA</b><br><br>Euskarrian sartu diren aitortpenen urte naturaleko lau zifrak jarriko dira.  |
| 9-17      | Alfanumerikoa | <b>AITORTZAILEAREN IFZ</b><br><br>Aitortzailearen IFZ jarriko da.<br><br>Eremu hau eskuinaldetik lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.   |
| 18-26     | Alfanumerikoa | <b>AITORTUAREN IFZ</b><br><br>Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarriko da.<br>Aitortua pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitate bat denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, eman gabeko herentzia, etab.), entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da (IFZ).<br><br>Eremu hau eskuinaldera lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.<br><br>Aitortuak adingabekoak badira eta ifzrik ez badute, eremu hau bete gabe utziko da, eta bere ordez «Legezko ordezkariaren IFZ» eremua beteko da, bertan legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorearen) IFZ jarriko delarik. |

Baldin eta lehentasunezko partaidetzak edo hirugarren batek jasotzen dituen etekinei lotutako bestelako zor tresnak bada, eremu honetan ere jaso behar dira: «Aitortuaren gakoa» eremuan «C» jarriko da (2. motako erregistroko 193 posizioa). Kasu horretan, ulertuko da ondorengo eremuak haiek kontura jasotzen dituen hirugarrenari buruzkoak direla: «legezko ordezkariaren IFZ» eremua (27-35 posizioak), «aitortuaren deiturak eta izena, sozietatearen izena edo izendapena» eremua (36-75 posizioak) eta «herrialdearen kodea» eremua (78-80 posizioak); eragiketa berberarako jarri beharko da jasotzailearentzat 2. motako erregistro bat eta beste bat, aldiz, haiek kontura jasotzen dituen hirugarrenarentzat.

**27-35**

**Alfanumerikoa**

**LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ**

Bakarrik baldin eta aitortua adingabekoa bada eta IFZ ez badu, eremu honetan legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorearen) IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia hutsuneekin beteko da.

**36-75**

**Alfanumérico**

**AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA**

a) Pertsona fisikoak bada, jar itzazu lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea bada, adingabearen deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.

b) Errentak egozten dituzten pertsona juridikoak eta entitateak izanez gero, entitatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

**76-77**

**Numérico**

**PROBINTZIAREN KODEA**

Aitortuak egoiliarrak bada, edo egoiliarrak izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez aritzen bada, bizi diren probintziaren edo, hala bada, hiri autonomoaren bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:

|            |    |          |    |
|------------|----|----------|----|
| ARABA      | 1  | LEON     | 24 |
| ALBACETE   | 2  | LLEIDA   | 25 |
| ALACANT    | 3  | LUGO     | 27 |
| ALMERIA    | 4  | MADRIL   | 28 |
| ASTURIAS   | 33 | MALAGA   | 29 |
| ÁVILA      | 5  | MELILLA  | 52 |
| BADAJOS    | 6  | MURTZIA  | 30 |
| BARTZELONA | 8  | NAFARROA | 31 |



|             |    |              |    |
|-------------|----|--------------|----|
| BURGOS      | 9  | OURENSE      | 32 |
| CACERES     | 10 | PALENTZIA    | 34 |
| CADIZ       | 11 | PALMAS, LAS  | 35 |
| KANTABRIA   | 39 | PONTEVEDRA   | 36 |
| CASTELLO    | 12 | ERRIOXA      | 26 |
| CEUTA       | 51 | SALAMANCA    | 37 |
| CIUDAD REAL | 13 | S.C.TENERIFE | 38 |
| KORDOBA     | 14 | SEGOVIA      | 40 |
| CORUÑA, A   | 15 | SEVILLA      | 41 |
| CUENCA      | 16 | SORIA        | 42 |
| GIRONA      | 17 | TARRAGONA    | 43 |
| GRANADA     | 18 | TERUEL       | 44 |
| GUADALAJARA | 19 | TOLEDO       | 45 |
| GIPUZKOA    | 20 | VALENTZIA    | 46 |
| HUELVA      | 21 | VALLADOLID   | 47 |
| HUESCA      | 22 | BIZKAIA      | 48 |
| BALEARRAK   | 7  | ZAMORA       | 49 |
| JAEN        | 23 | ZARAGOZA     | 50 |

Lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten ez diren ez-egoiliarren kasuan, 99 jarri behar da.

**78-80**

**Numerikoa**

**HERRIALDEAREN KODEA**

Baldin eta «probintziaren kodea» eremuan (2. motako erregistroko 76-77 posizioak) «99» jarri zaien zergadun ez-egoiliarrek badira, aitortua bizi den herrialdearen kodea jarri behar da. Horretarako, azaroaren 27ko 1.204/2001 Foru Aginduak VIII. eranskinean jasotzen dituen herrialdeen gakoei jarraituko zaie. Aipatu kodea lehendabiziko bi posizioetan jarri eta hirugarren posizioa zuriune batez bete behar da.

Egoiliarrek badira, edo egoiliarrek izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez aritzen badira, 78-80 posizioetan zuriuneak jarriko dira.

**81-83**

**Numerikoa**

**AITORTUEN KOPURUA**

Aitortzen den eragiketaren zenbat subjektuk hartu duten parte adieraziko da.

**84-90**

**ZURIUNEAK**

**91**

**Alfabetikoa**

**KODE MOTAREN GAKOA**

Jar ezazu gako hauetako bat, balore kontuaren, balore maileguaren edo beste batzuen identifikazioaren arabera:

Gakoa: C.

Balore Kontuaren Kodearekin (BKK) identifikatzen da kontua.

Gakoa: P.

«Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioa) «o» gakoa duen balore maileguaren eragiketa zenbakia.

Gakoa: O.

Beste identifikazio bat.

92-111

Numerikoa

#### **BALORE KONTUAREN KODEA / MAILEGU ERAGIKETAREN ZK.**

Datu hauek beteko dira aitortzailea entitate finantzario bat denean eta baloreak administratzeaz eta gordailatzeaz arduratzen denean.

Honela egituratzen da:

92-95. Entitatearen kodea.

96-99. Sukurtsalaren kodea.

100-101. Kontrol digituak.

102-111. Kontu zenbakia.

Balore-maileguen eragiketari «O» bat jarri bazaio «Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan), eremu honetan maileguaren eragiketa zenbakia jarriko da.

112-119

Numerikoa

#### **ERAGIKETAREN EDO MAILEGU HASIERAREN DATA**

Eragiketa noiz egin den adieraziko da. Urteko lau digituak jarriko dira, hilabeteko biak (01etik 12ra) eta eguneko biak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera.

Balore-maileguen eragiketari «O» bat jarri bazaio «Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan), eremu honetan maileguaren hasiera data jarriko da.

120

Numerikoa

#### **KODEAREN GAKOA**

Jaulkitzailearen kodea» eremuaren edukia eta, hala badagokio, ISIN kodea identifikatzen ditu.

Oro har, baloreak 4 gakoa jarritz identifikatuko dira, salbu eta baloreei ez bazaie ISIN kodea esleitu edo jaulkitzaileari ez bazaio IFZrik esleitu.

Honako balore hauek izan ditzake:

1. Baloreak jaulkitzailearen IFZren bidez bakarrik identifikatuta daude.
2. Baloreak ISIN kodearen bidez bakarrik identifikatuta daude.
3. ISIN koderik ez duten atzerriko baloreei dagokie.

4. Baloreak ISIN kodearen bidez (317-328 posizioak) eta jaulkitzailearen IFZren bidez (121-132 posizioak) identifikatuta daude.

121-132

Alfanumerikoa

#### JAULKITZAILEAREN KODEA

«Kodearen gakoa» eremuak (2. motako erregistroaren 120 posizioa) 1 balioa hartzen duenean, Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da. Berme edo gozamen eskubideak direnean, berriz, haiei lotutako ondasunen titularraren IFZ jarriko da («Kodearen gakoa» eremuko kasua, 120 posizioa, 1 balioarekin identifikatua).

«Kodearen gakoa» eremuan (120 posizioa) 4 balioarekin identifikatutako baloreen kasuan, eremu honetan Zerga Administrazioak jaulkitzaileari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da. ISIN kodeari dagokion identifikazioa «ISIN kodea» eremuan beteko da, 317-328 posizioetan.

ISINik ez duten atzerriko baloreen kasuan, aldiz, «ZXX» gakoa jarriko da; «XX» herrialde jaulkitzailearen kodea izango da, abenduaren 14ko 567/2016 Foru Agindua, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitortpen informatiboa» izeneko 291 eredu onartu, eta haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda ezartzen dituen, jasotzen dituen herrialde gakoaren arabera («Kodearen gakoa» eremua, 120 posizioa, 3 balioa).

«Kodearen gakoa» eremuan (120 posizioa) 2 balioarekin identifikatutako baloreen kasuan, eremu honek ez du edukirik izango, eta «ISIN kodea» eremua (317-328 posizioak) bete beharko da.»

133

Alfabetikoa

#### JATORRIAREN GAKOA

Gako hauetako bat jarri behar da:

- A. Kostu bidezko eragiketak. Era berean, akzio liberatuen entregan gako hau jarriko da.
- B. Kostu gabeko inter vivos eragiketak.
- C. Gainerako gakoetan jasota ez dauden adjudikazio edo aplikazio eragiketak.
- D. Kostu gabeko mortis causa eragiketak.

134

Alfabetikoa

#### ERAGIKETAREN GAKOA

Dagokion gakoa jarriko da:

Gakoa: A.

Esanahia: Eskubideak eskuratzea edo eratzea.

Gakoa: C.

Esanahia: Trukea.

Bi eragiketa aitortuko dira: trukea bera eta dagokion harpidetza. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gain («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako truke/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Gakoa: D.

Esanahia: Bihurketa.

Bi eragiketa aitortuko dira: bihurketa bera eta dagokion harpidetza. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gain («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako bihurketa/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Gakoa: E.

Esanahia: Eskubideak deuseztatzea edo azkentzea.

Gakoa: F.

Esanahia: Jaulkipen primaren itzulketa. Eragiketa mota honetan gako hau jarriko da, «H» gakoa jartzea ez dagokionean.

Gakoa: G.

Esanahia: Kapitala murriztea, ekarpenak itzulita. Eragiketa mota honetan gako hau jarriko da, «I» gakoa jartzea ez dagokionean.

Gakoa: H.

Esanahia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuetako batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten duten baloreen jaulkipen prima itzultzea.

Gakoa: I.

Esanahia: Kapitala murriztea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan araututako merkatuetako batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten duten baloreei dagozkien ekarpenak itzulita.

Gakoa: J:

Esanahia: Kapitala murriztea, baloreak amortizatuta.

Gakoa: K.

Esanahia: Banatu gabeko mozkinetatik datorren kapitala murriztea.

Gakoa: L.

Esanahia: Baloreen splita eta kontrasplita.

Bi eragiketa aitortuko dira: split edo kontrasplitekoa, eta dagokion harpidetzakoa. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gain («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako split (edo kontrasplit)/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Gakoa: O.

Esanahia: Zenbait zerga neurri onesten dituen apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak bigarren xedapen gehigarrian araututako baloreen maileguak.

Gakoa: P.

Esanahia: Baloreen mailegua eratzea.

Gakoa: Q.

Esanahia: Baloreen mailegua azkentzea.

Gakoa: S.

Esanahia: Harpidetza egitea.

Gakoa: T.

Esanahia: Eskualdaketa, amortizazioa edo itzulketa egitea.

Gakoa: V.

Esanahia: Balore trukea egitea, sozietateen gaineko zergaren bat-egiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta balore trukeen araubide berezia aplikatuta.

Bi eragiketa aitortuko dira: trukea bera eta dagokion harpidetza. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gain («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako truke/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Gakoa: X.

Esanahia: Akzio liberatuak entregatzea.

Gako hau jarriko da aitortuak aurretik izandako harpidetza eskubideei dagozkien akzioen kasuan.

Aitortuak aurretik zituen harpidetza eskubideak nahikoak ez badira eta akzio berriak harpidetzeko beste eskubide batzuk eskuratu baditu, ez da jarriko «X» gakoa, eta lotutako bi erregistro independente aitortuko dira: bat, harpidetza eskubideen eskurapenari dagokiona («A» eragiketa gakoa), eta, bestea, akzioen harpidetzari dagokiona («S» eragiketa gakoa). Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gain («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako eskurapen/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Gakoa: Y.

Esanahia: Bat egitea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 101. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

Bi eragiketa aitortuko dira: bat-egitea bera eta harpidetzari dagokiona. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gainera («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako bat-egite/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Bat-egite eragiketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 101. artikuluko baldintzak, C gakoa jarriko da.

Gakoa: Z.

Esanahia: Zatiketa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 101. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean.

Bi eragiketa aitortuko dira: zatiketa bera eta harpidetzari dagokiona. Lotutako eragiketa horietan, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakia adierazteaz gainera («hurrenkera zenbakia» eremua, 177-184 posizioak), lotutako zatiketa/harpidetza eragiketari dagokion hurrenkera zenbakia ere identifikatu behar da («lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» eremua, 454-461 posizioak).

Zatiketa eragiketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 101. artikuluko baldintzak, C gakoa jarriko da.

Gakoa: W.

Esanahia: Bestelako eragiketak.

C, D, L, V, X, Y eta Z gakoak duten eragiketak aitortu behar direnean, «Aitortutako eragiketaren ekitaldia» eremua (368-371 posizioak) beteko da baldin eta ekitaldi hori eta aitortpenarena bat eta bera ez badira.»

**135 Alfabetikoa**

### **MERKATUAREN GAKOA**

Eragiketa negoziatzen den merkatuaren arabera, hauek adieraziko dira:

Gakoa: A.

Esanahia: Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala.

Gakoa: B.

Esanahia: Atzerriko baloreen Europar Batasuneko bigarren mailako merkatu ofiziala.

Gakoa: C.

Esanahia: Espainiako beste merkatu batzuk.

Gakoa: D.

Esanahia: Atzerriko beste merkatu batzuk.

Gakoa: F.

Esanahia: Fede emaile publikoek kontrolatutako eragiketak.

Gakoa: O.

Esanahia: Merkatutik kanpo eginiko eragiketak (OTC).

Gakoa: P.

Esanahia: Atzerriko baloreen (Europar Batasunekoak kanpoan utzita) bigarren mailako merkatu ofiziala.»

**136 Alfabetikoa**

### **ADIERAZPEN GAKOA**

Gakoa: A.

Esanahia: Kontuko oharpenen bidez adierazten diren baloreak.

Gakoa: B.

Esanahia: Kontuko oharpenen bidez adierazten ez diren baloreak.

**137 Alfabetikoa**

### **BALOREAREN GAKOA**

Gako hauetako bat jarriko da:

Gakoa: A.

Akzio eta partaidetzak erantzukizun mugatuko sozietateetan.

Gakoa: B.

Etekin esplizituko aktibo finantzarioak, atxikitzeko obligaziotik salbuetsiak, J gakoan deskribatutako aktibo finantzarioak izan ezik.

Gakoa: C.

Etekin inplizituko aktibo finantzarioak, atxikitzeko obligaziotik salbuetsiak.

Gakoa: D.

Segregatu nagusiak.

Gakoa: E.

Kupoi segregatuak.

Gakoa: F.

Berme eskubideak.

Gakoa: G.

Gozamen eskubideak.

Gakoa: H.

Harpidetza eskubideak.

Gakoa: J.

Azalpena: etekin esplizituko aktibo finantzarioak, atxikitzeko obligaziotik salbuetsiak, lurraldeko ente publikoek jaulkitakoak, baldin eta amortizatzeko epea bi urtekoa edo txikiagoa bada eta eragiketaren zenbatekoa (amortizazio balioa) balio nominalarekin bat badator.

Gakoa: K.

Azalpena: lehentasunezko partaidetzak eta bestelako zor tresnak.

Gakoa: L.

Diferentzien araberako kontratuak.

Gakoa: M.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak. Eragiketaren gakoa eremuan «P» edo «Q» jarri denean bakarrik bete ahal izango da gako hau.

Gakoa: I.

Azalpena: beste batzuk.

138-149

150-164

Numerikoa

## ZURIUNEAK

### ERAGIKETAREN ZENBATEKOA

Eragiketaren zenbateko osoa adierazi behar da, eurotan. Eragiketetan dibisak erabili badira, kontrabalioa jarriko da.

«Gauzazko ordainketa» eremuak (2. motako erregistroko 248 posizioak) edukirik badu, jasotako ondasun edo eskubideen merkatu-balio normala jarriko da.



Orobat, eragiketari lotutako partaideak asko direnean, haietako bakoitzean jarri behar da bakoitzari bere partaidetza portzentajearen arabera egozten zaion zenbateko osoa.

Baloreak mailegatu direnean, haien balorazioa jarriko da sozietateen gaineko zergaren araudiak edo, hala badagokio, errenta zergaren araudiak xedatutakoaren arabera.

Baldin eta «eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioa) «T» eta «balorearen gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 137 posizioa) «B» edo «C» jarri bada, eta «etekinak» eremua (2. motako erregistroko 165-176 posizioak) zero ez bada, zeroz bete behar da eremu hau.

Eremu hau bitan banatzen da:

150-162. Eragiketaren zenbatekoaren zati osoa.

163-164. Eragiketaren zenbatekoaren zati hamartarra.

**165-176**

**Alfanumerikoa**

### **ETEKINAK**

Atxikipena egitetik salbuetsitako kasuetan, eurotan jasotako zenbatekoa edo, dibisaz eginiko eragiketetan, haren kontrabalioa. Orobat, eragiketari lotutako partaideak asko direnean, haietako bakoitzean beti jarri behar da bakoitzari bere partaidetza portzentajearen arabera egozten zaion zenbateko osoa.

Balore-maileguen kasuan «O» bat jarri bada «Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioa), mailegu-emileari ordaindutako saria jarriko da eremu horretan.

Etekinik sortu ez duten eragiketen kasuan, zeroak jarriko dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

165. Zeinua: Eremu alfabetikoa. Deskribatutako zenbatekoa negatiboa bada, eremu honetan «N» jarri beharko da. Beste edozein kasutan, zurienez beteko da.

166-176. Zenbatekoa: 11 posizioko eremu numerikoa.

Lehenago deskribatutako zenbatekoa adierazi behar da, koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan bana-tzen da:

166-174. Etekinen zenbatekoaren zati osoa.

175-176. Etekinen zenbatekoaren zati hamartarra.

**177-184**

**Numerikoa**

### **HURRENKERA ZENBAKIA**

Eragiketa bakoitza sekuentzialki zenbakituko da, eragiketa berean aitortutako guztiek (lehentasunezko partaidetzen kasuan etekinak beren kontura jasotzea dakarten hirugarrenak barne) hurrenkera zenbaki bera izan dezaten.

**185-187**

## **ZURIUNEAK**

**188-192**

**Numerikoa**

### **PARTAIDETZA PORTZENTAJEA**

Aitortu bakoitzak eragiketean duen partaidetza portzentajea adieraziko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

188-190. Portzentajearen zati osoa jarriko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).

191-192. Portzentajearen zati hamartarra jarriko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).

**193**

**Alfabetikoa**

### **AITORTUAREN GAKOA**

Gako hauetako bat jarriko da:

Gakoa: B.

Azalpena: Etekinen jasotzailea, lehentasunezko partaidetzak edo bestelako zerga tresnak direnean.

Gakoa: C.

Azalpena: Hirugarrena, zeinaren kontura jasotzen baitira lehentasunezko partaidetzen edo bestelako zor tresnen etekinak.

Gakoa: E.

Azalpena: Kontrapartidako Entitate Zentrala, likidazio prozesuan esku hartzen duenean urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Gakoa: N.

Azalpena: Jabe soila.

Gakoa: P.

Azalpena: Mailegu-emailea, baloreak mailegatzen direnean. Zehazki, gako hau jarri behar da, baldin eta baloreen mailegu eragiketetan «O» jarri bada «eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioa).

Gakoa: Q.

Azalpena: Mailegu-hartzailea, baloreak mailegatzen direnean.

Gakoa: T.

Azalpena: Titularra.

Gakoa: U.

Azalpena: Usufruktuduna.

Lehentasunezko partaidetzei edo bestelako zor-tresnei dagokienez foru agindu honen 3.Bat. i) artikuluan aipatzen den informazioa ematera behartuak dauden kasuan, bakarrik haiei dagozkien «B» edo «C» gakoak jarri behar dira.

194-208

Numerikoa

#### **ERAGIKETAREN NOMINALA**

Adierazi eurotan eragiketan negoziatu den nominala; eragiketak dibisatan egin badira, haien kontrabalioa jarriko da. Era berean, eragiketari lotutako aitortuak asko direnean, haietako bakoitzean jarri behar da bakoitzari bere partaidetza portzentajearen arabera egotzi dakiokkeen nominal negoziatua.

Zenbatekoak koma hamartarrik gabe adieraziko dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

194-206. Eragiketaren nominalaren zenbatekoaren zati osoa.

207-208. Eragiketaren nominalaren zenbatekoaren zati hamartarra.

209-215

Numerikoa

#### **ZURIUNEAK**

216-223

Numerikoa

#### **MAILEGUAREN MUGAEGUNA**

Baloreak mailega-tzeko eragiketari «O» jarri bazaio «eragiketaren gako» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioa), eremu honetan maileguaren mugaeguna jarri behar da datu hauek adieraziz: urtearen lau digituak, hilaren biak (01etik 12ra) eta egunaren biak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuan.

224-235

Numerikoa

#### **KONPENTSAZIOAK**

12 posizioko eremu numerikoa.

Eragiketak zerikusia badu baloreen maileguarekin eta «eragiketaren gako» eremuan (2. motako erregistroko 134. posizioan) «O» adierazi bada, eremu honetan konpentsazioen zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren gako» eremuko (2. motako erregistroko 134. posizioari dagozkion) gainerako gakoetarako, salbu eta V, Y eta Z gakoen kasuan, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81etik 84ra bitarteko artikuluetan ezarritako balore negoziagarriak likidatzeko prozeduratik ondorioztatutako konpentsazioen eta doikuntzen zenbatekoa jarriko da.

Batzordearen 2018ko maiatzaren 25eko 2018/1229 (EB) Erregelamendu Delegatuan xedatutakotik ondorioztatzen diren konpentsazioen zenbatekoa adieraziko da. Erregelamendu horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 (EB) Erregelamendua osatzen da, likidatzeko diziplinari buruzko erregulazio arau teknikoiei dagokienez.

Eremu hau bitan banatzen da:

224-233. Zati osoa: konpentsazioaren zenbatekoaren zati osoa.

234-235. Zati hamartarra: konpentsazioaren zenbatekoaren zati hamartarra.»

236-247

Numerikoa

### **BERMEAK**

12 posizioko eremu numerikoa.

Balore-maileguen eragiketari «O» bat jarri bazaio «Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan), eremu honetan bermeen zenbatekoa jarriko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

236-245. Bermearen zenbatekoaren zati osoa.

246-247. Bermearen zenbatekoaren zati hamartarra.

248

Alfabetikoa

### **GAUZA BIDEZKO ORDAINKETA**

«Eragiketaren gakoa» eremuan (2 motako erregistroko 134 posizioan) «H» edo «I» gakoa jartzen bada eta eragiketa hori gauza bidez ordaindu bada, «X» bat jarriko da hemen. Beste edozein kasutan, eremu hau zuriuneak izango dira.

Aitortu berarentzat diruzko zein gauzako eragiketak aitortzen badira, haietako bakoitza aitortuen erregistro independenteetan adieraziko da.

249

Numerikoa

### **JASOTAKO ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTA**

«Gauzako ordainketa» eremuak (2. motako erregistroko 248 posizioak) edukirik badu, hauek adieraziko dira:

1. Ondasun higiezinak.
2. Ondasun higiezinen gaineko eskubide errealak.
3. Ibilgailuak, itsasontziak edo aireontziak.
4. Beste ondasun edo eskubide -batzuk.

250

Numerikoa

### **HIGIEZINAREN KOKAPENA**

«Jasotako ondasun edo eskubide mota» eremuan (2. motako erregistroko 249 posizioan) «1» edo «2» gakoa jarri bada, gako hauen artean higiezinari dagokiona jarriko da:

1. Katastroko erreferentzia duen higiezina, lurralde espainiarreko edozein tokitan kokatua, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan izan ezik.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen higiezina.
3. Nafarroako Foru Erkidegoan kokatuta dagoen higiezina.
4. Aurreko egoeretako edozeinetan dagoen higiezina, baina finka zenbakirik edo erreferentzia katastralik gabea.
5. Atzerrian kokatutako ondasun higiezina.

**251-270**

**Alfanumerikoa**

#### **FINKA ZENBAKIA EDO KATASTROKO ERREFERENTZIA**

«Higiezinaren kokapena» eremuan (2. motako erregistroko 250 posizioan) «1», «2» edo «3» gakoa jarri bada, higiezinari dagokion finka zenbakia (zenbaki finkoa ere deitua) edo katastroko erreferentzia jarriko da eremu honetan, kasuen arabera.

Higiezina Gipuzkoan kokatuta badago, errentan emandako higiezinari esleitutako finka zenbakia edo zenbaki finko katastrala adierazi behar da eremu honetan. Finka zenbakia eskuinaldetik lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

**271-275**

#### **ZURIUNEAK**

**276-289**

**Alfanumerikoa**

#### **FUNTS PROPIOEN ZENBATEKOA**

«Eragikeatren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan) «H» edo «I» gakoa jartzen bada, kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketagatik eskuratu dituen akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa jarriko da; kapital-murrizketaren edo jaulkipen-primaren banaketaren dataren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagokion zenbatekoa izango da hori.

276 Zeinua: Alfabetikoa. Lehen adierazi den zenbatekoa negatiboa bada, «N» bat jarri behar da. Beste edozein kasutan, zuriuneak utziko dira.

277-289 Zenbatekoa: Lehen adierazitako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan banatuta dago:

277-287: Kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketagatik eskuratu dituen akzio edo partaide-tzei dagozkien funts propioen zenbatekoaren zati osoa.

288-289: Kapital-murrizketak ukituta dauden edo aitortuak jaulkipen-primaren banaketagatik eskuratu dituen akzio edo partaide-tzei dagozkien funts propioen zenbatekoaren zati hamartarra.

**290-302**

**Numerikoa**

### **LEHENAGO BANATUTAKO MOZKINAK**

«Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan) «H» edo «I» gakoa jarri bada, hemen adierazi behar da zer mozkin banatu diren kapitala murrizteko edo jaulkipen-priman banatzeko eragiketa egin baino lehen. Mozkin horiek aitortuaren akzio edo partaidetzen funts propioetan jasotako erreserbetatik etorri behar dute.

290-302 Zenbatekoa: Lehen adierazitako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan banatuta dago:

290-300: Zenbatekoaren zati osoa.

301-302: Zenbatekoaren zati hamartarra.

**303-315**

**Numerikoa**

### **ERRESERBA BALIAEZINAK**

«Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134 posizioan) «H» edo «I» gakoa jarri bada, hemen adierazi behar da «funts propioen zenbatekoa» eremuan (aitortuaren 2. motako erregistroko 276-289 posizioak) adierazi diren eta aitortuari dagozkion akzioak edo partaidetzak eskuratu direnetik sortutako erreserba baliaezinen zenbatekoa.

303-315 Zenbatekoa: Lehen adierazitako zenbatekoa jarri behar da, koma hamartarrik gabe.

Eremu hau bitan banatuta dago:

303-313: Zenbatekoaren zati osoa.

314-315: Zenbatekoaren zati hamartarra.

**316**

**Alfabetikoa**

### **USTEZ ABANDONATUTA DAUDEN KONTUAK**

Eremu honetan «X» batekin identifikatuko dira, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera, ustez abandonatuta dauden kontuak, aitortuak identifikatzeko arazoak egoteagatik.

**317-328**

**Alfanumerikoa**

#### **ISIN KODEA**

«Kodearen gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 120 posizioa) 2 eta 4 balioak jarri badira, ISIN kodea jarri beharko da. Kode hori konfiguratu behar da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, balore negoziagarriak eta bestelako finantza tresna batzuk kodifikatzeko dituen eginkizunen barruan, kodeen egiturari buruz emandako uztailaren 28ko 1/2010 Arau Teknikoan ezarritakoarekin bat etorrira.

**329-340**

**Numerikoa**

#### **ERAGIKETAREN GASTUAK**

«Balorearen gakoa» eremua (137 posizioa) A gakoarekin eta «merkatuaren gakoa» eremua A, B edo P gakoarekin bete badira, eragiketak ekarri dituen gastuen zenbatekoa adieraziko da eremu honetan.

Aitortu bat baino gehiago baldin badago eragiketari lotuta, partaidetza portzentajearen arabera bakoitzari egozgarri zaizkion gastuen zenbateko osoa jarriko da.

Eremu hau bete gabe utzi ahal izango da errenta jasotzen duena sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun denean.

Eremu hau bitan banatzen da:

329-338. Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati osoa.

339-340. Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati hamartarra.

**341-347**

#### **ZURIUNEAK**

**348-360**

**Alfanumerikoa**

#### **EMANDAKO/JASOTAKO KONPENTSAZIO MONETARIOA**

Eragiketaren gakoa» eremuan (134 posizioa) V, Y edo Z gakoa jarri bada, eragiketan eman edo jaso den konpentsazio monetarioaren zenbatekoa adieraziko da, halakorik izan denean. Eremu honetan bereziki jarri beharko da zer zenbateko jaso duen akziodunak tituluak saldu eta, salmenta horretan truke ekuazioa gainditzeagatik, titulu horiek ez dutenean eskubiderik eman jasotako tituluen akzio oso bat jasotzeko (hondarren salmenta).

Eremu hau honela banatuta dago:

348: Konpentsazioaren zeinua. Konpentsazio monetarioak aitortuak emandakoak direnean «N» balioa baino ez da jarriko.

349-358: Emandako edo jasotako konpentsazio monetarioaren zati osoa.

359-360: Emandako edo jasotako konpentsazio monetarioaren zati hamartarra.

**361-366**

**Numerikoa**

#### **ERAGIKETAREN ORDUA**

«Merkatuaren gakoa» eremuan (135 posizioa) A, B edo P gakoa jarri bada, zehatz adierazitako da noiz egin den eragiketa: ordua, minutua eta segundoa.

Eremu hau ez da bete behar aitortu berak egun berean prezio berean egindako eragiketak direnean. Halaber, bete gabe utzi ahal izango da errentaren hartzailea sozietateen gaineko zergaren zergaduna edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna (establezimendu iraunkorra duena) denean.

Eremu hau hirutan banatuta dago:

361-362. Eragiketaren ordua, 24 orduko formatuan.

363-364. Eragiketaren minutua.

365-366. Eragiketaren segundoa.

**367**

**Alfabetikoa**

#### **AITORTZAILEAREN IZAERA**

Eremu hau «X» batez beteko da, kasu honetan bakarrik: urriaren 14ko 33/2014 Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 89.9 artikuluan adierazitako eragiketetan, baldin eta aitortzaileak eragiketa horietan esku hartzen badu abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaz onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga betebeharraren formalen Erregelamenduko 51. artikuluan adierazitako aitortzen informatzailea aurkeztera behartuta dagoen subjektu gisa.

Gainerako kasuetan, eremu hau bete gabe utziko da.

**368-371**

**Numerikoa**

#### **LOTUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA**

Eremu hau beteko da bakar-bakarrik «Lotutako eragiketaren hurrenkera zenbakia» (354-461 posizioak) aitortpenarena ez den ekitaldi bati dagokionean.

Lotutako eragiketa oraindik gauzatu gabe badago, eremu honetan «0001» jarriko da.



Lotutako eragiketa aurreko ekitaldi batekoa bada, eremu honetan ekitaldi hori adieraziko da.

Gainerako kasuetan, eremu hau zeroz beteko da.

**372-380**

**Alfanumerikoa**

**BITARTEKARIAREN IFZ**

Lotutako eragiketa («Lotutako eragiketaren zenbakia», (354-461 posizioak) beste bitartekari baten bidez egin bada, aitortzaileak eremu honetan adierazi beharko du zein den lotutako eragiketa horretan aritu den bitartekariaren identifikazio fiskaleko zenbakia.

Eremu hau eskuinaldetik lerrokatu behar da, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.»

**381-420**

**Alfanumerikoa**

**BITARTEKARIAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATE IZENA EDO IZENDAPENA.**

Lotutako eragiketa («Lotutako eragiketaren zenbakia», (354-461 posizioak) beste bitartekari baten bidez egin bada, aitortzaileak bitartekari horren izen osoa edo sozietate izena adierazi behar du eremu honetan, ondoren zehazten den eran:

a) Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarriko dira, hurrenkera horretan nahitaez. Aitortua adingabea bada, adingabearen deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.

b) Pertsona juridikoen eta errentak esleitzen dituzten entitateen kasuan, entitatearen sozietate izena edo izendapena jarriko da, oso-osorik, anagramarik gabe.

**421-427**

**Numerikoa**

**ENTITATE AITORTZAILEAN DAGOEN PARTAIDETZA PORTZENTAJEA.**

«Eragiketaren gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 134. posizioan) «H» edo «I» gakoa jarri bada, eremu honetan adierazi behar da zer partaidetza portzentaje duen aitortuak kapitala murrizten duen edo jaulkipen-prima itzultzen duen entitatean.

Eremu hau bitan banatzen da:

421-423: Portzentajearen zati osoa adieraziko da (ez badu, zeroak jarri).

424-427: Portzentajearen zati hamartarra adieraziko da (ez badu, zeroak jarri).

**428-441**

**Numerikoa**

**FINANTZA-AKTIBOEN ETA BESTE BALORE BATZUEN KOPURUA**

Eremu hau bitan banatzen da:

428-437. Eragiketaren xede diren balore, eskubide, partaidetza edo kontratuen zati osoa (ez badu, zeroak jarriko dira).

438-441. Eragiketaren xede diren balore, eskubide, partaidetza edo kontratuen zati hamartarra (ez badu, zeroak jarriko dira).

**442-453**

**Numerikoa**

#### **ZEHAPENAK**

Batzordearen 2018ko maiatzaren 25eko 2018/1229 (EB) Erregelamendu Delegatuan xedatutakotik ondorioztatzen diren zehapenen zenbatekoa adieraziko da. Erregelamendu horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 (EB) Erregelamendua osatzen da, likidatzeko diziplinari buruzko erregulazio arau teknikoei dagokienez.

Eremu hau bitan banatzen da:

442-451. Zehapenen zenbatekoaren zati osoa.

452-453. Zehapenen zenbatekoaren zati hamartarra.

**454-461**

**Numerikoa**

#### **LOTUTAKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA**

Eremu hau beteko da lotutako eragiketek C, D, L, V, Y eta Z eragiketa gakoa dutenean (134. posizioa), eta, horretarako, kasuan kasuko eragiketaren «hurrenkera zenbakia» eremuan (177-184 posizioak) ageri den hurrenkera zenbakia adieraziko da.

Era berean, eremu hau beteko da harpidetza eskubideak eskuratzeko eragiketak (A eragiketa gakoa) eta akzioak harpidetzeko eragiketak (S eragiketa gakoa) elkarrekin lotu behar direnean, «eragiketaren gakoa» eremuan adierazten den bezala (X gakoa).

**462-500**

#### **ZURIUNEAK**

- \* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- \* Edukirik ez duten eremu numeriko guztiak zeroz beteko dira.
- \* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak zuriunez beteko dira.
- \* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatu behar dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- \* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik lerrokatu behar dira, eta eskuinaldeetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe, eremuaren deskribapenean besterik esaten denean izan ezik.



























































